



## **2023ko SAN BARTOLOME JAIETAKO PROGRAMAREN AZALA** **AUKERATZEKO LEHIAKETA - ELGOIBAR**

Elgoibarko Udalaren Kultura Sailak lehiaketa antolatu du 2023ko San Bartolome Jaietako programaren azala aukeratzeko.

### **OINARRIAK**

**LEHENENGOA.-** Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

**BIGARRENA.-** Teknika libre izango da (argazkia, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira. Lanen neurria honako hau izango da: 225 mm x 225 mm neurrikoa edo proportzionala, 300 puntu hazbeteko bereizmena duena.

**HIRUGARRENA.-** Egile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta lanak argitaratu gabeak izango dira. Ezin da aurretik aurkeztutako lanekin parte hartu.

**LAUGARRENA.-** Ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea:

### **“ELGOIBAR, SAN BARTOLOME JAIK 2023”**

**BOSGARRENA.- ZORTZIREHUN EUROKO (800 €) sari bakarra izango da.**

**SEIGARRENA.-** Lanak Aita Agirre kulturagunean aurkeztu behar dira. Lanak aurkezteko epea **2023ko EKAINAREN 23an**, eguerdiko 13:00etan bukatuko da.

Aita Agirre kulturagunea  
Aita Agirre plaza, 3-1.ezk  
20870-Elgoibar

**ZAZPIGARRENA.-** Lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira, atzeko aldean “leloa” jarrita. Honekin batera, kartazal itxi batean, parte-hartzailearen datu pertsonalak eta NANaren kopia bidaliko dira, eta kartazalaren gainean, lanaren “leloa” jarriko da.

**ZORTZIGARRENA.-** Saritu gabeko lanak epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren jaso ahal izango dira. Horretarako, HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO epea izango da. Lanak aipatutako epean jaso ezean, Udalak uste izango du egileak horiei uko egiten diela. Ondorioz, egileari inolako eskubiderik aitortu eta ordainik eman gabe, egoki irizten dion moduan erabiliko ditu.

**BEDERATZIGARRENA.-** Saritutako lana euskarri informatikoan eman beharko zaie antolatzaileei, baldin eta formatu horretan eginda badago. Lana, bestalde, Udalaren jabetzapean geratuko da.

**HAMARGARRENA.-** Saritutako lanak Udalaren esku geldituko dira. Udalak, halaber, lan horiek inprimatzeko, argitaratzeko eta ezagutarazteko eskubidea izango du, baita gainerako eskubide guztiak ere.

**HAMAİKAGARRENA.-** Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Erabakia hartzen den egun berean jakingo da epaimahaia nork osatzen duen. Epaimahaian emakumeen eta gizonen ordezkariak parekatua izango dela bermatuko da. Horretaz gain, epaimahaiak argituko ditu oinarri hauei buruz sor daitezkeen zalantzak.

**HAMABIGARRENA.-** Lehiaketara aurkezteko, guztiz onartu beharko dira lehiaketa arautzen duten oinarriak.

**HAMAHIRUGARRENA.-** Saridunek saria jasotzera etorri beharko dute, eta ezinezkoa bazaie, ordezkariaren batek jaso beharko du. Sari banaketara, ez bata, ez bestea bertaratzen ez badira, saria baliogabetu egingo da.

**HAMALAU GARRENA.-** Generoa irudikatze erabiltzen diren irudietan oreka bete beharko da, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria saihestuz.



## **CONCURSO DE ELECCIÓN DE LA PORTADA DEL PROGRAMA DE FIESTAS “SAN BARTOLOMÉ 2023”-ELGOIBAR**

El Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Elgoibar convoca un concurso para la elección de la portada del programa de Fiestas de San Bartolomé 2023, con arreglo a las siguientes:

### **BASES**

**PRIMERA.** - Podrán participar en este concurso todas las personas que lo deseen, mayores de 18 años.

**SEGUNDA.** - La Técnica a emplear será libre, y las obras se presentarán sobre soporte rígido. El tamaño de las obras será tamaño 225 mm x 225 mm o proporcional, con una resolución de 300 p.p.p.

**TERCERA.-** Cada autora o autor podrá participar con un máximo de dos obras originales e inéditas. No podrán participar obras presentadas en ediciones anteriores.

**CUARTA.** - Deberá constar el siguiente texto:

### **"ELGOIBAR, SAN BARTOLOME JAIK 2023"**

**QUINTA.** - Se establece un único premio de **OCHOCIENTOS EUROS (800 €)**.

**SEXTA.** - Los trabajos deberán entregarse en Aita Agirre kulturgunea, antes de las 13:00 horas **del 23 de JUNIO de 2023**.

Aita Agirre kulturgunea  
Aita Agirre plaza, 3-1.ezk  
20870-Elgoibar

**SÉPTIMA.** - Los trabajos deberán ser presentados sin identificar y bajo un lema que figurará escrito al dorso acompañado de un sobre cerrado, figurando en su exterior el mismo lema que en el trabajo presentado. En el interior del sobre constarán los datos personales del autor, y una fotocopia del D.N.I.

**OCTAVA.** - Los trabajos no premiados podrán ser retirados en el plazo de TREINTA (30) DÍAS, contados a partir del fallo del jurado. Transcurrido el plazo citado sin que los/las autores/as los hayan retirado, se entenderá que renuncian a ellos, y el Ayuntamiento podrá disponer libremente de los mismos, sin reconocer sobre estos, derecho de reclamación o indemnización.

**NOVENA.** - El trabajo premiado deberá entregarse a la organización en soporte informático si lo tuviere, y el trabajo quedará en propiedad del Ayuntamiento.

**DÉCIMA.** - El trabajo premiado quedará en propiedad del Ayuntamiento, quien se reserva todos los derechos relacionados a su impresión, publicación, difusión, etc.

**UNDÉCIMA.** - El fallo del jurado será inapelable. La composición del jurado se dará a conocer el mismo día del fallo. Se garantizará que la composición del jurado sea paritaria en cuanto a la representación de hombres y mujeres. El jurado podrá resolver cualquier duda que se presente en la interpretación y aplicación de estas bases.

**DUODÉCIMA.-** La persona ganadora deberá estar presente en la entrega de premios y si no pudiese, en su defecto un@ representante. Si no estuviesen ni uno/a ni otro/a en la entrega de premios, el premio quedaría desierto.

**DECIMOTERCERA.-** El hecho de presentarse al concurso implica la plena aceptación de las Bases que lo regulan.

**DECIMOCUARTA.-** Las imágenes utilizadas tenderán al equilibrio en la representación de los géneros, sin reforzar los roles y estereotipos tradicionales, evitando un tratamiento peyorativo de las diferencias de sexo, raza, edad, cultura u opción sexual.